

HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa alde zuzenetik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (izen-abizenak eta NANA). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. • Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. • Denbora: 4 min azalpena egiteko eta 1 min aztertzailearen galderari erantzuteko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. • Helburua iritzia trukatzea, argudiatzea eta eztabaidatzea da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	<p>35-40 min</p> <p>(15 min gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun jariora, zuzentasuna eta aberastasuna.

NERABEENTZAKO JOKO BATZUEN ATZEAN DAGOEN ARRISKUA



Jendea bere buruaz beste egitera bultzatzen duen *Balea Urdina* jokoaren ustezko bi kasu ikertu ditu Ertzaintzak, bata Erreterian eta bestea Durangon. Biktimak adin txikikoak izan dira, 14 eta 17 urtekoak.

Segurtasun Sailak azaldu duenez, jokoa Errusian hasi zen sare sozialen bidez. Parte-hartzaileek probak gainditzen joan behar dute, adibidez, ezorduetan jaikitzea beldurrezko filmak ikusteko, besoetan eta hanketan ebakiak egitea, edo zubi zein eraikinetako goiko aldeetan egotea. Azken proban jokalariek beren buruaz beste egin behar dute. Jokoa kontrolatzen duenak garbi uzten die ezin dutela amore eman eta ezin diotela inori ezer esan.

<www.eitb.eus>, 2017ko maiatza.
 Egokitua

Balea Urdina jokoan parte hartzen duten nerabeak nagusiki bi multzotan bereizten dira.

Alde batetik, nolabaiteko depresio-maila duten gazteak ditugu. Nerabetasunean familia-gunetik urrundu eta kanpoan, sare sozialetan, harreman berriak bilatzen dituzte, onarpen soziala lortzeko edo garrantzitsu sentitzeko. *Balea Urdina* bezalako jokoek behar horri erantzuten diote eta horregatik dira hain arrakastatsuak.

Beste alde batetik, badira joko horietan jakin-minez soilik sartzen diren nerabeak. Horiek, printzipioz, gazte «normalak» dira. Arazoa da ez direla arriskuaz ohartzen beranduegi den arte.

<www.gazteberri.eus>, 2017ko ekaina.
 Egokitua

- Zer uste duzu horrelako jokoez? Benetako mehatxu baten aurrean gaude?
- Zergatik dira hain arrakastatsuak joko horiek nerabeen artean?
- Nola uler daiteke nerabe batek bere buruaz beste egitea?
- Zer egin beharko lukete erakunde publikoek? Eskolak? Eta gurasoek?

1. ariketa. Azaldu gaia eta eman zure iritzia

- 15 min dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min dituzu azalpena egiteko.
- Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.
- Ebaluatzerakoan, hauxek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jariora, zuzentasuna eta aberastasuna.

HEZURRA ETA AZALA BAINO EZ PASARELETAN



Europako hainbat gobernuak neurriak ezarri dituzte modeloen muturreko argaltasuna eragozteko; azkena Frantzia izan da. Pasareletan dabilzan modeloek mediku-ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dute gorputz-masaren indize (GMI) egokia dutela, eta, beraz, osasuntsu daudela.

GMIa pertsonen egoera nutrizionala ezartzeko erabiltzen da, eta bi datu erabiltzen dira kalkulatzeko: norberaren pisua eta altuera.

ARMENDARIZ, A. *Berria*. 2017ko maiatza. Egokitua


Modeloen gehiegizko argaltasunak zeresan handia eman ohi du eta eztabaida-iturri da. Elena Loyok (modelo ohia) onartzen du lana izateko ezinbesteko baldintza dela. «Bagenekien pixka bat lodituz gero, ez genuela lanik izango. Diseinatzaileek neurri jakin bateko jantziak egiten dituzte eta, sartzen ez bazara, arazoa duzu».

Loyoren ustez, argalegi dauden emakumeak ez dira fisikoki erakargarriak, gutxi jatearen ondorioz, behar bezala elikatu gabe eta ahul dagoen gorputza baldin bada. «Hezurra eta azala baino ez duten emakumeek ez lukete eredu izan behar. Modarena oso mundu lehiakorra da eta eder egon beharrak buruhausteak sor ditzake».

IBARGOEN, M. *Naiz*. 2015eko otsaila. Egokitua

-
- Zer deritzozu Frantziako neurriari? Zer beste neurri hartu beharko litzateke?
 - Ezinbesteko baldintza da argalegi egotea? Horrela hobeto erakusten da arropa?
 - Erakargarriak iruditzen zaizkizu argalegi dauden modeloak? Gorputz-ereduak al dira?
 - Modelo horiek badute eraginik gizartean? Nola saihesta daiteke eragin hori?

BIDEOZAINZA-KAMERAK, SEGURTASUNAREN BERMEA



- **Segurtasuna** emango ligukete, **delinkuentzia murrizteko** irtenbide ona lirateke.
- **Kalea leku publikoa** da; beraz, kamerak **ez** digute **pribatutasuna kentzen**.
- **Gaizkileei**, kamerak ikusita, **burutik kenduko** litzaieke **ezer txarrik egitea**.
- **Deliturik** eginez gero, **gaizkilea nor** izan den **jakiteko** balioko lukete.
- **Denbora pasa** ahala, kamerak **ahaztuko genituzke** eta **bizimodu normala** egingo genuke.
- **Merkeagoa** da hainbat lekutan **kamerak** izatea **poliziak patruilatzea** baino.
- Badaude **legeak, arauak** eta **protokoloak** kamerak kokatzeko zein irudiak egoki erabiltzeko.

BIDEOZAINZA-KAMERAK, ASKATASUNAREN KONTRAKO MEHATXUA



- **Pribatutasuna eta gizabanakoaren askatasuna** daude gauza guztien gainetik.
- Bideozaintza-kamerek **ez** lukete **delinkuentziaren arazoa** erabat **konponduko**.
- Kaleko **bitzta ez** litzateke **berbera**, ez genuke hainbat gauza egingo **lotsa** edo **beldurragatik**.
- Jendea **kezkaturata** egongo litzateke grabatutako **irudien erabileraz**.
- **Kamerak egon** arren, sarritan **kameren atzean ez** dago **inor**; orduan, **zertarako?**
- Irudiek **ez** dute beti **gaizkilea nor den jakitea bermatzen**: kalitate eskasa, aurpegi-babesak... **Okerrekoa atxilotzeko arriskua** ere badago.
- Gaizkileek **kamerarik ez** dagoen **leketan** egingo lituzkete **gaiztakeriak**.

2. ariketa

Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain.


- Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizuegu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
- Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
- Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 10 min elkarrizketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- Elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- Esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- Euskara nola erabiltzen duzuen: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

A fitxa


BIDEOZAINZA-KAMERAK, SEGURTASUNAREN BERMEA



- **Segurtasuna** emango ligukete, **delinkuentzia murrizteko** irtenbide ona lirateke.
- **Kalea leku publikoa** da; beraz, kamerek **ez digute pribatutasuna kentzen**.
- **Gaizkileei**, kamerek ikusita, **burutik kenduko** litzaieke **ezer txarrik egitea**.
- **Deliturik** eginez gero, **gaizkilea nor** izan den **jakiteko** balioko lukete.
- **Denbora pasa** ahala, kamerek **ahaztuko genituzke** eta **bizimodu normala** egingo genuke.
- **Merkeagoa** da hainbat lekutan **kamerek** izatea **poliziak patruilatzea** baino.
- Badaude **legeak, arauak** eta **protokoloak** kamerek kokatzeko zein irudiak egoki erabiltzeko.

B fitxa

BIDEOZAINZA-KAMERAK, ASKATASUNAREN KONTRAKO MEHATXUA



- **Pribatutasuna** eta **gizabanakoaren askatasuna** daude gauza guztien gainetik.
- Bideozaintza-kamerek **ez** lukete **delinkuentziaren arazoa** erabat **konponduko**.
- Kaleko **bizitza ez** litzateke **berbera**, ez genuke hainbat gauza egingo **lotsa** edo **beldurragatik**.
- Jendea **kezkatuta** egongo litzateke grabatutako **irudien erabileraz**.
- **Kamerek egon** arren, sarritan **kameren atzean ez** dago **inor**; orduan, **zertarako?**
- Irudiek **ez** dute beti **gaizkilea nor den jakitea bermatzen**: kalitate eskasa, aurpegi-babesak... **Okerrekoa atxilotzeko arriskua** ere badago.
- Gaizkileek **kamerarik ez** dagoen **leketan** egingo lituzkete **gaiztakeriak**.